

Euskara auzitan

El Mundo del País Vasco, 1992-02-28.

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitara berri du liburuxka jakingarri bat, Mari Karmen Garmendiak Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo batzordeari joan den urteko azaroaren 14an egindako aurkezpena dakar. Datu ugariz hornitua: arrazoi bideak eman eta legez defendatzen du euskara; eta bi hizkuntzetan idatzia dator, hemen bizi den orok ikus eta ikasi dezan. Neronek ez dut kolumnatxo honetan Idazkari Nagusiak laburpenbilduz ematen dituen hamar puntuak bi hitzetan emateko beste lekurik; Gernikako Autonomiaren barruan, herriak demokratikoki elebitasuna aukeratu zuen. Honelako erdiespen guztietan gertatzen denez, kontrariorik ere badu elkarbizitzarako pentsatua dagoen biktima honek. Beraz, elebitasunaren aukera ontzat eman dugunok badugu aurrean lanik. Bakoitzak berea egin behar du, bai euskaldunok, eta baita erdaldunak ere. Bada, hasteko, deneri ongi datorkion zerbait; frogatua dago elebitasuna berez pertsonaren garapenerako ona dela. Egia da hizkuntzak sentipen bereziak sortzen dituela, baina legeak ematen dituen eskubideak izateaz gain, besterenak ere errespetatu egin behar dira. Bide hau hartu genuenetik urteak joan eta ona balantze moduko zerbait egitea; jakin behar dugu gauden; egindako bidearen eskarmentuarekin etorkizuna nola prestatu. Aurreak erakusten omen du atzea nola dantzatu. Euskaldunoi dagokigunez, konturatu behar dugu administrazioak ezin duela dena egin, bere mugak dituela, eta euskaldunak berak duen ilusioa eta hartzen duen konpromezua dela hemen azken finean gaindutako dena. Egiatan hizkuntza suspertuko duen bihotza, hau, guhauetako bakoitzak jarri behar du. Uzten badigute, behintzat.